

## Donostia Turismoak tokiko ekonomiaren aldeko apustua egingo du

- Donostia Turismoak aisialdiko eta negozioko turismo alorrean, tokiko enpresen errekupeazioa lehenetsiko du. Aste Santurako eta hurrengo hilabeteetarako sustapen-ekintzen bidez egingo dute, hurbileko publikoari zuzenduta.
- Negozioko turismoaren esparruan, “Donostia ElkarEkin” izeneko ekimena jarri da abian hiru helbururekin: segurtasun-berme guztiekin bilera profesionalak antolatu ahal izateko informazioa eskaintzea Gipuzkoako enpresei, tokiko ekonomia bultzatzea eta babestea, eta hiriko MICE (*Meetings, Incentives, Conferences & Exhibitions*) eskaintza zabalari balioa ematea.
- Aisialdiko turismoari dagokionez, “Aste Santurako planak” kanpaina jarriko da martxan. Hainbat plan eta jarduera eskainiko dira hiriaz gozatzeko, betiere, tokiko sektore turistikoa sustatzera begira.



Hurrengo bileran  
kontuz ibili  
marrazoekin

Lan-bilera bat egiteko konfiantzazko leku baten bila bazabiltza,  
DONOSTIA ELKARREKIN egitasmoa aurkezten dizugu

DONOSTIA ELKARREKIN

Donostia San Sebastián  
T. 943 481 166 | congress.sanebastianturismoa.eus

*Donostian, 2021eko martxoaren 24an*

Donostia Turismoak hilabetearen hasieran aurkeztutako eta emozio- eta solidaritate-ikuspegiarekin Estatuko jendeari zuzendutako “Zuen falta nabari dugu. Berriro ere bidaiatuko dugu” kanpainaren arrakastaren ostean, datozen hilabeteetara begira, turismo-erakundeak **tokiko sektore turistikoa** sustatzeko eta dinamizatzeko hainbat ekintza jarri ditu martxan, betiere **hurbileko jendeari** zuzenduta.

Cristina Lagé Turismo Sostengagarriko zinegotziak honako hau nabarmendu du: *“orain, inoiz baino gehiago, oso garrantzitsua da tokiko ekonomia babestea bai aisialdiko turismo-sektorean, bai negozio-sektorean. Donostiako enpresak dinamizatzeko hainbat ekintzaren bidez egiten dugu; izan ere, dakigun moduan, osasun-krisiaren eraginez, une zaila ari dira igarotzen”.*

## Donostia elkarrEkin

Egungo osasun-krisiaren ildotik, Gipuzkoako enpresa askoren jarduera kaltetu egin da beharrezko segurtasun-neurriak betetzen dituzten instalazioak ez edukitzeagatik. Hori dela eta, Donostia Turismoak “Donostia ELKARREKIN” proiektua aurkeztu du. Horren helburua **Donostiako egoitza desberdinetan**, modu **seguruan**, bilera profesionalen ospakizuna sustatzea da.

“Donostia ELKARREKIN” kontzeptuak agerian jartzen du modu eraginkorrean eta emozionalki Gipuzkoako enpresak hiriko MiCE zerbitzuekin **konektatzeko** beharra. Ekimenaren bidez, Donostian modu **seguruan eta arrakastatsuan** topaketa edo ekimen profesionala antolatzeko hainbat leku jartzen dira enpresen eskura, betiere, **jardueraren garapena normaliza** dezaten. Gainera, egoera normalean enpresa horiek sarbiderik izango ez luketen (aukera-faltagatik edo okupatuta egon ohi direlako) leku berezietan ekimenak antolatzeko aukera da: museo bat, jauregi bat, hoteleko erreserbatu bat edo itsasorako ikuspegiak dituen terraza bat, besteak beste.

Bestalde, bilerak hiriko egoitza desberdinetan egitera animatu nahi da hurbileko zerbitzuak kontratatuz, betiere, **tokiko ekonomia babestu eta bultzatzeko, solidaritate ohitura sortuz** eta hiriko **MICE eskaintza** zabala **balioetsiz**. *“Guztien esku dago neurri batean bada ere, egungo egoera alderantzikatzea. Ekimenak hiriko gune eta azpiegitura desberdinetara eramateak tokiko ekonomiari laguntzea esan nahi du; izan ere, pandemiak gehien zigortu duen sektoreetako bat aktibatzen da: ekimen profesionalen sektorea”,* adierazi du Lagé-k.

Proiektua sustatzeko, telemarketin-eko ekimen bat egingo da eta **Gipuzkoako 900 enpresa baino gehiagori** dei egingo zaio. Horiei, Adegirekin elkarlanean, azalpen-aldizkari bat bidaliko zaie. Gainera, Donostia Turismoko sare sozialen bidez eta tokiko bitartekoetan kanpaina eginez sendotuko da ekimena.


Enpresa interesdunak Donostia Turismoarekin jar daitezke harremanetan 943 48 11 66 zenbakian edo **congress.sansebastianturismoa.eus** webgunenaren bidez.

Hauk dira Donostian eta inguruetan bilerak egiteko gune batzuk:

### HOTELAK

<a href="#">Arbaso Hotela</a>	
<a href="#">Arima Hotela</a>	
<a href="#">Arrizul Congress Hotela</a>	
<a href="#">Astoria 7 Hotela</a>	
<a href="#">Barceló Costa Vasca Hotela</a>	
<a href="#">De Londres y de Inglaterra Hotela</a>	
<a href="#">Hesperia Donosti Hotela</a>	
<a href="#">ILUNION San Sebastián Hotela</a>	
<a href="#">Lasala Plaza Hotela</a>	
<a href="#">María Cristina Hotela</a>	
<a href="#">Mercure Monte Igueldo Hotela</a>	
<a href="#">NH Collection San Sebastián Aránzazu Hotela</a>	
<a href="#">Hotela</a>	
<a href="#">Palacio de Aiete Hotela</a>	
<a href="#">Sercotel Europa Hotela</a>	
<a href="#">Silken Amara Plaza Hotela</a>	
<a href="#">Zenit San Sebastián Hotela</a>	

### EGOITZAK

<a href="#">Aquariuma</a>	
<a href="#">Basque Culinary Center</a>	
<a href="#">Chillida Leku</a>	
<a href="#">Cristobal Balenciaga Museoa</a>	
<a href="#">Convent Garden</a>	
<a href="#">Eureka! Zientzia Museoa</a>	
<a href="#">Ficoba Erakustazoka</a>	
<a href="#">Gipuzkoako Bazkundera</a>	
<a href="#">Gu San Sebastián</a>	
<a href="#">Hipodromoa</a>	
<a href="#">Kursaal Kongresu jauregi eta auditorioa</a>	
<a href="#">Miramar jauregia</a>	
<a href="#">Olarain</a>	
<a href="#">San Telmo Museoa</a>	
<a href="#">Tabakalera</a>	
<a href="#">Victoria Eugenia Antzokia</a>	
<a href="#">Sagardotegiak</a>	
<a href="#">Txakolindegia</a>	

Bileren turismoa da Donostia Turismoak bultzatutako **ildo estrategikoetako** bat; izan ere, ezagutza sortzen eta partekatzen laguntzen du, baita tokiko jarduera ekonomikoa kokatzen, bistaratzen eta dinamizatzen ere. 2019an, osasun-krisiaren hasiera baino lehen, kalkulatu zen negozio-turismoak **50 milioi euro** inguruko inpaktu ekonomikoa izan zuela (kongresukide bakoitzeko ostatu-gau kopurua aintzat hartuta, batez beste 350 €-ko gastua kalkulatu da) hirian.

### Aste Santurako planak

“Aste Santurako planak” kanpaina herritarrei eta hurbileko bisitariari dago zuzenduta, **Donostia eta hiriak eskaintzen duen gutzia berriz ezagutzera animatuz; horrela, sektoreko Donostiako enpresa txikiei eta ertainei ematen zaie babesa.**

[sanebastianturismoa.eus](http://sanebastianturismoa.eus) webgunearen bidez, hirian egiteko hainbat plan, jarduera eta esperientzia kontsultatu eta erreserbatu ahal izango dira: bisitaldi gidatuak, txangoak, tour gastronomikoak, itsasertzeko paseoak, kirol-jarduerak... eta hirian eta inguruan garraioa eskaintzen duten eta baliabide turistikoa nagusietan beharpenak eskaintzen dituzten txartel turistikoa –SSCard eta BasqueCard– eskuratu ahal izango dira.

Aste Santuan plan hauek erreserbatu ahal izango dira:

ASTE SANTUKO PLANAK	KATEGORIA
BIZIKLETA ELEKTRIKOAN BISITA: Donostiako auzoak	CITY TOUR
BISITA BIZIKLETA ELEKTRIKOAN: 3 hondartzak	CITY TOUR
BIKE TOUR-a hiritik	CITY TOUR
DONOSTIA ETA BERE FUNTSA bisita gidatua	CITY TOUR
JAUREGIZ JAUREGI	CITY TOUR
HIRIKO SENDERISMOA: Ezagutzeko moduko baso bat	CITY TOUR
PARKE LASAIK	CITY TOUR
DONOSTIAKO ONENA OINEZ	CITY TOUR
HONDARRIBIATIK PASAIARA	TXANGOAK
GIPUZKOAKO KOSTA	TXANGOAK
SAGARDOETXEN BAZKARIA ETA BISITA	GASTRONOMIA
PINTXO MARIDATUAK	GASTRONOMIA
PINTXO TOURRA: GROS	GASTRONOMIA
TALAI-BERRI TXAKOLINDEGIRA BISITA	GASTRONOMIA
ILUNABARRA + ESPERIENTZIA GASTRONOMIKOA	GASTRONOMIA
AQUARIUMa	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
SAN TELMO MUSEOA	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA + PLANETARIOA	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
LA PERLA: TALASO 2 ORDU + BAZKARIA	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
KASINOA/ PREMIUM KASINOA	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
CHILLIDA LEKU MUSEOA	MUSEOAK, AISIA, IKUSKIZUNAK
ORIA IBAIAREN JAITSIERA KAYAKEN	ITSAS IBILALDIK ETA KIROLA
BISTATU UHARTEA ITSASONTZIAN	ITSAS IBILALDIK ETA KIROLA
KATAMARANA- DONOSTIAN KOSTAKO ZEHARKALDIA	ITSAS IBILALDIK ETA KIROLA



Donostia eta bere funtsa, bisita gidatua



Hiru hondartza bizikleta elektrikoan



Donostiako onena oinez

Kanpaina sare sozialen bidez, Dbus, Lurraldebus eta online eta offline bidezko komunikazio-bitartekoen bidez zabalduko da.

Gainera, hiriari buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izango da eta jarduerak Donostia Turismoaren bulegoan bertan erreserbatu ahal izango dira. Hain zuzen ere, Aste Santuan bulegoa zabalik egongo da egunero 10:00etatik 17:00etara, apirilaren 5ean, astelehenean, izan ezik, 10:00etatik 14:00etara egongo baita zabalik. Whatsapp (607 187 462) edo telefono (943 48 11 66) bidez ere egin ahal izango dira kontsultak.